

**“BILBAO GAZTE PARTEKATZEN”
PROGRAMAKO GAZTEENTZAKO
ETXEBIZITZA PARTEKATUAK ESLEITZEKO
DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK**

**BASES QUE RIGEN LA CONVOCATORIA DE
ADJUDICACIÓN DE VIVIENDAS
COMPARTIDAS PARA JÓVENES DEL
PROGRAMA “BILBAO GAZTE PARTEKATZEN”**

Lehenengoa.- Testuingurua

Emantzipazioa funtsezkoa da helduarora igarotzeko eta erabat gizarteratzeko bizimodu autonomoko proiektu bat eraikitzeko eta finkatzeko prozesuan. 1980ko hamarkada ingurura arte, gure inguruko emantzipazioa prozesu labur eta homogeen samarra zen, eta horrekin batera familia bat osatzen zen. Hala ere, azken hamarkadetakoz gizarteraldaketan ondorioz, gure gizartearen ezaugarri nagusiak dira, alde batetik, ziurgabetasuna eta, bestetik, alternatiba ugariak. Langabeziak, lan-prekarietateak eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunek zalantza betetako etorkizuna utzi diote prestakuntzarik onena duen historiako belaunaldiari, emantzipazio-prozesua atzeratuz.

Euskadin, 18 eta 34 urte bitarteko biztanleen % 32,3 emantzipatuta daude (2015ean, % 37 ziren), baina alde handia 18 eta 24 urte bitartekoen artean dago, adin-tarte horretan % 5,3ra jaisten baita ehuneko hori. Horrela, gure eremuan emantzipatzeko adina 29,8 urtekoa den bitartean, Europan 26,2 urtekoa da; azken adin hau gertuago dago Euskadiko gazteen nahietatik.

Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategiaren helburuetako bat da 2030erako batez besteko emantzipazio-adina 28 urtera jaistea, helburu hori lortzeko aukera emango duten ekimenak abian jartzeko erakunde arteko lankidetzak sustatuz.

Hori dela eta, Bilboko Udala, Gazteria eta Kirol Sailaren, Etxebizitza Sailaren eta Bilboko Udal Etxebizitzak erakunde autonomoaren bitartez, hainbat neurri jartzen ari da abian Bilboko gazteei laguntzeko:

Primera.- Contexto

La emancipación constituye un elemento esencial en la transición a la edad adulta y a la plena integración social en el proceso de construcción y consolidación de un proyecto de vida autónoma. Hasta aproximadamente la década de 1980, en nuestro entorno la emancipación constituía un proceso relativamente breve y homogéneo y solía ir acompañado de la formación de una familia. No obstante, las transformaciones sociales que estamos viviendo en los últimos decenios han dado paso a una sociedad caracterizada, de un lado, por la incertidumbre y, de otro, por las alternativas múltiples. El desempleo, la precariedad laboral y las dificultades de acceso a la vivienda, dibujan un futuro incierto para la generación mejor formada de nuestra historia, que tiene que sufrir el retraso de su proceso de emancipación.

En Euskadi el 32,3% de la población de 18 a 34 años está emancipada (el 37% en 2015), si bien la gran diferencia se produce en el tramo de 18 a 24 años, en el que este porcentaje se reduce hasta el 5,3%. Así, mientras que la edad de emancipación en nuestro ámbito es de 29,8 años, en Europa esta edad se sitúa en los 26,2 años, una edad más acorde al deseo de la juventud vasca.

La Estrategia Vasca 2030 para el Reto Demográfico sitúa entre sus objetivos reducir la edad media de emancipación a los 28 años en 2030, promoviendo la cooperación interinstitucional en la puesta en marcha de iniciativas que posibiliten la consecución de este objetivo.

Es por esta razón que el Ayuntamiento de Bilbao, a través del Área de Juventud y Deporte, el Área de Vivienda y el O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao, está poniendo en marcha diferentes medidas para apoyar a la juventud bilbaína:

- "Gazte solidarioak" programa: graduondoko ikastaroetan matrikulatutako ikasleentzako programa da eta hirian dauden unibertsitateekin lankidetzan – Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea – eskaintzen da; helburua da alokairu partekatuko erregimenean udal-pisuak eskaintzea, 55 euroko prezio sinbolikoan (argi- eta ur-gastuak ez daude sartuta).
- Programa "Jóvenes Solidarios": prestado en colaboración con Universidades implantadas en la villa – Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea la Universidad de Deusto y Mondragon Unibertsitatea–, está dirigido al alumnado matriculado en cursos de postgrado y que consiste en ofrecer pisos municipales en régimen de alquiler compartido a un precio simbólico de 55 € (gastos de luz y agua no incluidos).
- Trukean, ikasleek proiektu komunitarioetan eta kolektibo zaurgarriei laguntza emateko ekimenetan parte hartu behar dute 20 etxebizitza horiek dauden auzoetan, hau da, Otxarkoagan eta Bilbo Zaharrean.
- Como contrapartida, los estudiantes colaboran en proyectos comunitarios y en el apoyo a colectivos vulnerables en los barrios de Otxarkoaga y Bilbao La Vieja, donde se ubican las 20 viviendas en las que residen los estudiantes que se benefician de esta iniciativa.
- Etxebizitza kolaboratibo jasangarriaren programa: erakundearen Zuzendaritza Kontseiluaren erabaki bidez onartu eta 2024ko martxoaren 5eko BAO-n argitaratu zen. Programak, lehenengo edizioan, Euskadin indarrean dagoen babes ofizialeko araudiak etxebizitza beharra definitzeko ezarritako parametroen barruan dauden pertsonen beharra ase du, Etxebiden izena emanda dauden eta alokairuko etxebizitza eskatzen duten pertsonen artean etxebizitza eskuragarria eskatzeko nitxo baten barruan. Programak 37 etxebizitza izan zituen, eta 35 urtetik beherako pertsonentzat izan zen, betiere diru-sarrerak 21.000 euro haztatu eta 43.753,71 euroren artekoak bazituzten.
- Programa de Vivienda Colaborativa Sostenible: aprobadas por acuerdo del Consejo de Dirección del Organismo y publicadas en el B.O.B. el 5 de marzo de 2024, ha satisfecho en su primera edición la necesidad de personas que se hallan dentro de los parámetros de definición de necesidad de vivienda establecidos por la normativa de protección oficial vigente en Euskadi, comprendidas en un nicho de demanda de vivienda asequible entre personas demandantes de vivienda en alquiler inscritas en Etxebide. El programa contó con 37 viviendas y estuvo dirigido a personas con una edad inferior a 35 años en el rango de ingresos entre 21.000 euros ponderados y el límite máximo de 43.753,71 euros.
- Zuzkidura-bizitokiak: gazteen emantzipazioa sustatzeko politiken esparruan, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAK Ametzolako 66 zuzkidura-bizitokien esleipen-irizpide partikularretan profilen definizioa mugatu du, ahal dela gazteentzat izan daitezen, haien berezko ezaugarrien arabera. Izan ere, "etxebizitza bat legez okupatzeko zailtasunak dituzten [...]"
- Alojamientos Dotacionales: en el marco de las políticas de fomento del apoyo a la emancipación juvenil, el OAL VVMM de Bilbao ha acotado la definición de perfiles, con carácter forma preferente, al colectivo juvenil en los criterios de adjudicación particulares de los 66 alojamientos dotacionales de Ametzola, con arreglo a las características propias de los mismos, en tanto que se conciben

“[...]” pertsonen bizitzeko beharra aldi baterako konpontzera -errenta edo kanona ordainduz- bideratutako egoitza-baliabidea da; horixe da, hain zuzen ere, kolektibo horren kasua eta, beraz, bizi-ibilbide pertsonalaren fase bati lotuta dago. Zuzkidura-bizitokien komunitatea osatzen duten kideak 30 urtetik beherako gazteak dira, lanbidearteko gutxieneko soldataren pareko edo gehiagoko lan-sarrerak dituztenak, eta gehienez ere LGSa halako bi; zuzkidura-bizitokien bidez, bost urtez egoitza eskuragarria ematen zaie bizitza independentearen proiektua garatzeko eta finkatzeko behar den egonkortasuna izate aldera.

Irizpide horien arabera, I. faseko zuzkidura-bizitokien % 50, hau da, 33 unitate, pertsona bakarreko 30 urtetik beherako gazteentzat bideratu ziren. II. faseko bizitokien esleipenean irizpide berberak mantentzea aurreikusten da

como recurso residencial “destinado a resolver de forma transitoria mediante abono de renta o canon la necesidad de habitación de personas[...]” “[...]con dificultades de acceso a la ocupación legal de una vivienda[...]”, como es el supuesto de este colectivo y su vinculación por lo tanto a una fase del itinerario vital personal. En la composición de los miembros que componen la comunidad de los ADAs se integra la perspectiva vital de las personas jóvenes menores de 30 años que cuentan con ingresos de trabajo iguales o superiores al Salario Mínimo Interprofesional y hasta un máximo de 2 veces el SMI para quienes el acceso a un recurso residencial asequible durante cinco años les ofrece la estabilidad necesaria para desarrollar y afianzar un proyecto de vida independiente.

Con arreglo a dichos criterios, el 50% de los alojamientos dotaciones de la Fase I, esto es. 33 unidades, se destinaron al colectivo de personas jóvenes menores de 30 años unipersonales. Se prevé que se conserven los mismos criterios en la adjudicación de los alojamientos de la Fase II

- Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren Erregelamendua: erregelamendu berriak, egokitasunaren arabera esleipen-sistema aplikatuz – esleipen-metodo arrunta –, lehentasunezko interes-kupoak ezartzea xedatzen du, une bakoitzean erroldatutakoen eskariari eta haren bilakaerari erreparatuta, eta erabilgarri dauden etxebizitzak kupo bakoitza osatzen duten eskatzaileen proportzio berari esleituz. Lehentasunezko esleipen-kupoa 35 urtetik beherakoena izango da. 2021az geroztik, esleitzeko proposatzen diren eta benetan esleitzen diren etxebizitzak erdiak, gutxi gorabehera, 35 urtetik beherakoei esleitzen zaizkie.

Era berean, Erregelamenduak Zuzendaritza Kontseiluari ahalmena

- Reglamento de OAL VVMM de Bilbao: el nuevo reglamento dispone, en aplicación del sistema de adjudicación por idoneidad –que es el método de adjudicación ordinario– el establecimiento de cupos de interés preferente, atendiendo en cada momento a la demanda censada y su evolución, adjudicando las viviendas disponibles a misma proporción de demandantes que integren cada cupo, siendo el cupo de adjudicación prioritario el de menores de 35 años. Desde el 2021, en torno a la mitad de las viviendas que se proponen para su adjudicación y se adjudican efectivamente son a menores de 35 años.

El Reglamento habilita asimismo al Consejo de Dirección a establecer, con

ematen dio, horretan oinarrituta, alokairua ez den beste esleipen- eta edukitza-modu batzuk ezartzeko, edo etxebizitza esleitzeko beste edozein mekanismo ezartzeko, egokitasun-egoerak kontuan hartuta, gazteak bereziki lotzen dituzten esleipen-sistema espezifikoetat hartuta, bai eta etxebizitza partekatuen programak sartzeko ere, aldi baterako bizileku-premian dauden kolektiboentzat.

- GAZ Bilbao: 16 eta 34 urte bitarteko gazteentzako doako zerbitzua da, emantzipazio-prozesuan laguntzeko. Zerbitzua Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzarekin elkarlanean ematen da.

Langile espezializatuek informazioa, orientazioa, aholkularitza eta laguntza integrala eta pertsonalizatua ematen dute emantzipazio-proiektuetan (etxebizitza, enplegua, mugikortasuna, prestakuntza eta beste batzuk). Gainera, informazio-hitzaldiak, jarduerak eta tailerrak ere eskaintzen ditu, gazteek beren ahala eta talentua garatu ahal izan ditzaten.

Testuinguru horretan planteatu dute Udal Etxebizitzak erakundeak eta Gazteria eta Kirol Sailak "Bilbao Gazte Partekatzen" programa berria, alokairu-formulen bidez partekatutako pisuetan emantzipatzeko aukera gisa, familiaren etxean bizi diren 22 eta 29 urte bitarteko Bilboko gazteentzat.

Programa bi erakundeek koordinatuko dute Batzorde Misto baten bidez. Batzorde hori Gazteria eta Kirol Saileko eta Udal Etxebizitzaren Saileko ordezkariak osatuko dute, eta honako eginkizun hauek izango ditu:

- Programaren jarraipena egitea.
- Programa betetzean sor daitezkeen gorabehera guztiak konpontzea.
- Egonaldiak luzatzen diren erabakitzea.

base en mismo, otros modos de adjudicación y tenencia distintos al arrendamiento, o cualesquiera otros mecanismos de asignación de vivienda, en atención a las circunstancias de oportunidad, teniendo consideración de sistemas específicos de adjudicación que vinculan de forma especial a jóvenes, así como la incorporación de programas de pisos compartidos sobre colectivos en situación de necesidad habitacional transitoria.

- GAZ Bilbao: es un servicio gratuito dirigido a jóvenes de 16 a 34 años para acompañarles en su proceso de emancipación. El servicio se presta en colaboración con la Dirección de Juventud del Gobierno Vasco. Personal especializado informa, orienta, asesora y acompaña de manera integral y personalizada en los proyectos de emancipación (viviendas, empleo, movilidad, formación y otras de su interés). Además, cuenta con una programación de charlas informativas, actividades y talleres para que las personas jóvenes puedan desarrollar su potencial y talento.

Y es en este contexto en el que Viviendas Municipales y el Área de Juventud y Deporte plantean el nuevo Programa "Bilbao Gazte Partekatzen" como una alternativa de emancipación en pisos compartidos mediante fórmulas de alquiler, dirigida a jóvenes de Bilbao, de 22 a 29 años, que residan en el domicilio familiar.

El Programa será coordinado por ambas entidades a través de una Comisión Mixta formada por representantes del Área de Juventud y Deporte y de Viviendas Municipales con los siguientes cometidos:

- Hacer seguimiento del Programa.
- Resolver cuantas incidencias puedan surgir en el cumplimiento del Programa.
- Acordar la prórroga de las estancias.

- Programaren onuradunak kanporatzea proposatzea, betebeharrak betetzen ez badituzte.
- Proponer la expulsión de las personas beneficiarias del Programa como consecuencia del incumplimiento de las obligaciones.

Gazteria eta Kirol Sailak eta Udal Etxebizitzak Sailak, ados jarrita, Erakunde Laguntzaile bat izendatuko dute, Programaren funtzionamendua ikuskatzeko eta parte-hartzaileen ohiko premiei erantzuteko.

El Área de Juventud y Deporte y Viviendas Municipales designarán de común acuerdo a una Entidad Colaboradora que supervise el funcionamiento del Programa y atienda las necesidades ordinarias de las personas participantes.

Bigarrena.– Programaren helburuak

Segunda.– Objetivos del Programa

Programaren helburu espezifikoak honako hauek dira:

Los objetivos específicos del Programa son:

- Emantzipazioko lehen esperientzia ahalbidetzea, alokairu ekonomikoa lortzea erraztuz eta emantzipazioaren kultura sustatuz.
- Posibilitar la primera experiencia de emancipación, facilitando el acceso a un alquiler económico y fomentando la cultura de la emancipación.
- Ahalduntze-prozesuetan laguntzea, emantzipazio duina eta iraunkorra lortzeko.
- Acompañar procesos de empoderamiento para una emancipación digna y sostenible en el tiempo.
- Gazteek komunitatean parte-hartze aktiboa eta solidarioa izan dezaten bultzatzea, herritarren bizikidetzarako balio eta ohitura normalizatuak partekatuz, bai sozialak, bai ekoiraunkorrak.
- Impulsar la participación activa y solidaria de jóvenes en la comunidad, compartiendo valores y hábitos normalizados de convivencia ciudadana, tanto sociales como ecosostenibles.

Programak, hasierako fase honetan, 9 plaza –gela – eskaintzen ditu, ezaugarri hauekin:

El Programa ofrece, en esta fase inicial, 9 plazas –habitación–, con las siguientes características:

- Partekatutak (2 edo 3 gazte etxebizitza bakoitzeko) banakako logelan.
- Compartidas (2 o 3 jóvenes por vivienda) en habitación individual.
- Etxebizitzako eremu komunetan sukaldea eta oinarrizko altzariak daude.
- Acondicionadas con cocina y mobiliario básico en las zonas comunes de la vivienda.
- Etxebizitza-erabileraz besteko errentamendu-kontratuak –logelakoak – urtebeteko iraupena izango du, eta beste 3 urtez luzatu ahal izango da gehienez.
- El contrato de arrendamiento distinto de vivienda –de habitación– tendrá una duración anual prorrogable por plazos iguales hasta un máximo de 3 años.
- Programa honen barruko esleipenaren kontraprestazio gisa, honako hauek ezartzen dira:
- Como contraprestación a la adjudicación en el seno de este Programa se establecen:

- Prezio sinbolikoa: 55 euro hilean. Argi-, ur- eta gas-gastuak ez daude sartuta (kalkulatu da hilean 60 euro).
- Komunitatearentzako zerbitzuak, gutxienez astean 4 orduz, Udal Etxebizitzak erakundeak eta Gazteria eta Kirol Sailak gidatutako proiektuen barruan. Zereginak esleitzean, ahal den neurrian, parte hartzen duten gazteen prestakuntza, gaitasunak eta interesak hartuko dira kontuan.
- Un precio simbólico de: 55€ al mes. Los gastos de luz, agua y gas no están incluidos (importe estimado: 60€ al mes).
- Servicios a la comunidad con una dedicación mínima de 4 horas a la semana en el marco de los proyectos liderados por Viviendas Municipales y el Área de Juventud y Deporte. En la asignación de tareas, se tendrá en cuenta, en la medida de lo posible, la formación, competencias e intereses de los y las jóvenes participantes.
- Etxebizitzak Otxarkoaga auzoko Irumineta, Txotena eta Larratundu kaleetan daude. Ez dituzte hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren zehaztapenak.
- Las viviendas están ubicadas en las calles Irumineta, Txotena y Larratundu del barrio de Otxarkoaga. No cuentan con las especificaciones del Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

Hirugarrena.— *Betekizunak*

- a) 22 eta 29 urte bitartean izatea. Hala ere, etxebizitzetako gutxieneko egonaldiaren iraupena (urtebete) betetzen dela bermatzeko, eskatzaileek 28 urte izan beharko dituzte gehienez eskaera aurkezteko unean.
- b) Bere kargura pertsonarik ez izatea.
- c) Etxebiden eskatzaile gisa inskribatuta egotea, alokairuan, Udal Etxebizitzak erakundeak oinarriak argitaratzen diren egunean jasotako azken fitxategiko eskatzaileen zerrendaren arabera. Etxebiden alokairuko eskatzaile gisa izena emanda dagoen ala ez ofizioz egiaztatuko du Bilboko Udal Etxebizitzak erakunde autonomoak.

Tercera.— *Requisitos*

- a) Tener entre 22 y 29 años. No obstante, a fin de garantizar el cumplimiento de la duración mínima de estancia en las viviendas (1 año), las personas solicitantes deberán contar con una edad no superior a 28 años en el momento de la presentación de la solicitud.
- b) No tener personas a su cargo.
- c) Hallarse inscrita en Etxebide como demandante en régimen de alquiler, conforme a la lista de demandantes correspondientes al último fichero recibido por Viviendas Municipales el día de publicación de las bases. El dato relativo a la inscripción en Etxebide como demandante en régimen de alquiler será comprobado de oficio por O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao.

- d) Bilbon gutxienez 6 hilabete lehenagotik eta modu jarraituan bizitzea (Gazteria eta Kirol Sailak egiaztatuko du erroldaren bidez) familiaren etxebizitzan. Familiaren etxebizitzatzat hartzen da eskatzailearen familia-unitatearen bizilekua dena. Familia-unitateko titularrak eta eskatzaileak odolkidetasuneko lehen edo bigarren mailako ahaidetasun-harremana izango dute. Interesdunak behar bezala egiaztatu beharko du ahaidetasun-harremana.
- e) Etxebizitzarik jabetzan, usufruktuan edo alokairuan ez izatea. Eskatzaileak datu hori egiaztatuko du, hala eskatzen zaionean, Jabetza Erregistroko kokapen-ohar bat aurkeztuta.
- f) Eskatera-egunean urtean gutxienez 16.520 eta gehienez 21.000 euro gordinoko diru-sarrerak egiaztatzea. Plaza esleitu eta hurrengo 6 hilabeteetan diru-sarrera horiei eusteko benetako itzaropena egiaztatu beharko da. GAZ Bilbaok egokitzen jotzen duen dokumentazioa eskatuko dio interesdunari. Horretarako, baliteke interesdunaren familia-unitatearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar izatea eskariarekin batera, 2. oinarrian ezarritako betebeharrak ekonomikoak ordaintzeko konpromisoa hartzen duela adieraziz.
- g) "Emantzipazioarako ibilbide pertsonala" izatea, GAZ Bilbaoren zerbitzuarekin lankidetzan diseinatuko dena. Emantzipazioarako
- d) Residir en Bilbao con una antelación mínima y continuada de 6 meses (circunstancia que será comprobada por el Área de Juventud y Deporte a través del Padrón), en el domicilio familiar. Se entiende por domicilio familiar aquel que sirva de residencia de la unidad familiar de la que forma parte la persona solicitante. La relación de parentesco del titular de la unidad familiar con la persona solicitante será de primer o segundo grado de consanguinidad. La relación de parentesco deberá ser suficientemente acreditada por la persona interesada.
- e) No disponer de vivienda en propiedad, usufructo o arrendamiento. Este dato será acreditado por el o la solicitante cuando le sea requerido mediante la aportación de una nota de localización del Registro de la Propiedad.
- f) Acreditar ingresos mínimos a fecha de solicitud de 16.520 euros brutos anuales e ingresos máximos no superiores a 21.000 euros brutos anuales. Se deberá acreditar la expectativa real de mantenimiento de estos ingresos durante los 6 meses siguientes a la adjudicación de la plaza. GAZ Bilbao requerirá a la persona interesada la documentación que estime oportuna. A tal efecto, podrá ser valorada la presentación de una declaración responsable de la unidad familiar de la que forma parte la persona interesada en el momento de la solicitud manifestando su compromiso a sufragar las obligaciones económicas establecidas en la base 2.
- g) Contar con un "Itinerario Personal de Emancipación" que será diseñado en colaboración con el servicio GAZ Bilbao. Para el diseño del Itinerario

ibilbide pertsonala diseinatzeko, aurkeztutako dokumentazioa eta elkarriketan bildutako datuak hartuko dira kontuan. GAZ Bilbaok ibilbidea behar bezala betetzen dela egiaztatuko du

Personal de Emancipación se tendrá en cuenta la documentación aportada y datos recabados en la entrevista. GAZ Bilbao hará seguimiento del adecuado cumplimiento del Itinerario.

- h) Komunitatearentzako zerbitzuen plana -erakunde laguntzaileak esleitu diona- betetzea.

- h) Cumplimiento del Plan de Servicios a la Comunidad que le sea asignado por la Entidad Colaboradora.

Programaren onuradunek, programan parte hartzen duten bitartean, eskatutako betekizunak bete beharko dituzte, programan jarraitzea justifikatzen duten inguruabar bereziak eta apartekoak daudenean izan ezik, betiere Batzorde Mistoaren iritziz eta programaren helburuak oinarri hartuta.

Las personas beneficiarias del Programa deberán mantener durante la vigencia de su participación en el Programa el cumplimiento de los requisitos exigidos, salvo que concurran circunstancias especiales y excepcionales, que justifiquen, a criterio de la Comisión Mixta, en base a los objetivos del Programa, la permanencia en el Programa.

Laugarrena.– Eskaria

Cuarta.– Solicitud

4.1. Eskaria aurkezteko epea eta modua

4.1. Plazo y forma de presentación

Programaren oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta <https://bilbaogazte.bilbao.eus/es/> webgunean argitaratuko dira.

Las bases del Programa se publicarán en el Boletín Oficial de Bizkaia y en la página web <https://bilbaogazte.bilbao.eus/es/>.

Eskariak 2025eko azaroaren 7tik 2025eko abenduaren 9ra aurkeztuko dira.

Las solicitudes se presentarán desde el 7 de noviembre de 2025 hasta el 9 de diciembre de 2025.

Eskabideak <https://bilbaogazte.bilbao.eus/eu/> web-orriaren bidez aurkeztu beharko dira, dagokion inprimakia betez. Eskabidearekin batera ez da inolako agiririk aurkeztu beharko.

Las solicitudes deberán presentarse a través de la página web <https://bilbaogazte.bilbao.eus/es/>, rellenando el formulario correspondiente. A la solicitud no habrá de acompañarse documentación alguna.

Interesdunak GAZ Bilbaoren bulegora joan ahal izango dira Programari buruzko informazioa eskatzera eta eskabideak aurkezteko laguntza eskatzera.

Las personas interesadas podrán acudir a la oficina de GAZ Bilbao a solicitar información sobre el Programa y a recabar colaboración para la presentación de las solicitudes.

4.2. Eskaria ez onartzeko arrazoiak

4.2. Causas de inadmisión de la solicitud

Programan ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsonak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira, baita udalak eskatuta

Serán excluidas del proceso de selección las personas solicitantes que no cumplan los requisitos establecidos en el Programa o no

betekizunak behar bezala egiaztatzen ez dituzten eskatzaileak ere.

los acrediten suficientemente a requerimiento municipal.

Bosgarrena.– Adjudikazio prozedura

Quinta.– Procedimiento de adjudicación

Plazak prozedura honen arabera esleitu dira:

Las plazas se adjudicarán de acuerdo con el siguiente procedimiento:

5.1. ZOZKETA: Gazteria eta Kirol Sailak zozketa publikoa egingo du eskabide guztiekin. Zozketaren data eta zerrenda egoki denean iragarriko dira <https://bilbaogazte.bilbao.eus/eu/es> webgunean.

5.1.SORTEO: El Área de Juventud y Deporte realizará un sorteo público con todas las solicitudes. Tanto la fecha como el listado del sorteo serán oportunamente anunciados en la página web <https://bilbaogazte.bilbao.eus/es/>.

5.2. BETEKIZUNAK EGIAZTATZEA: Udalak ofizioz egiaztatuko ditu 3. oinarriko c) eta d) letretan eskatutako betekizunak, eta esleipen-prozesutik kanpo geratuko dira betekizun horiek betetzen ez dituzten eskatzaileak.

5.2. COMPROBACIÓN DE LOS REQUISITOS: El Ayuntamiento comprobará de oficio los requisitos exigidos en las letras c) y d) de la base 3, excluyéndose del proceso de adjudicación a los y las solicitantes que no cumplan tales requisitos.

5.3. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA: GAZ Bilbao gainerako betekizunak egiaztatzen dituzten agiriak eskatuko dizkie hautaketa-prozesuan jarraitzen duten eskatzaileei, zozketaren ondoriozko ordenaren arabera. Eskatzen zaienean dokumentazio hau aurkeztu beharko dute GAZen bulegoetan (La Perrera eraikina, Sabino Arana 50), 5 egun balioduneko epean (zapatu-domekak eta jaiegunak kanpo)

5.3. PRESENTACIÓN DE DOCUMENTACION: La documentación que acredite el resto de los requisitos será requerida por GAZ Bilbao a las personas solicitantes que se mantengan en el proceso de selección según el orden resultante del sorteo. Las personas requeridas presentarán la siguiente documentación en las oficinas de GAZ Bilbao (edificio La Perrera, Sabino Arana 50) en un plazo de 5 días hábiles (excluidos los sábados, los domingos y los festivos):

- Jatorrizko NANA.
- 3. oinarriko g) letran eskatzen den betekizuna egiaztatzeko, dokumentu hauetako bat edo batzuk aurkeztu ahal izango dira:
 - 10T.
 - Azken nominak.
 - Aurreko ekitaldiko errenta-aitorpena.
 - Interesdunaren familia-unitatearen erantzukizunezko adierazpena, 2. oinarrian ezarritako betebeharrak ekonomikoak ordaintzeko

- DNI original.
- Para la acreditación del requisito exigido en la letra g) de la base 3 se podrán presentar uno o varios de los siguientes documentos:
 - 10T.
 - Últimas nóminas.
 - Declaración de la renta del ejercicio anterior.
 - Declaración responsable de la unidad familiar de la persona interesada comprometiéndose a sufragar las obligaciones económicas establecidas en la base 2.

konpromisoa hartzen duela adierazten duena.

- Indarreko lan-kontratua.

GAZ Bilbao, beharrezkotzat jotzen badu, dokumentazio osagarria eskatu ahal izango du.

- Contrato de trabajo vigente.

Si lo estima necesario, GAZ Bilbao podrá requerir documentación complementaria.

5.4. EMANTZIPAZIORAKO IBILBIDE

PERTSONALA: Aurreko betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, eta GAZ Bilbao aurreko betekizunak betetzen direla egiaztatzen duenetik 5 egun balioduneko epean, prozesuan jarraitzen duten interesdunek Bilboko GAZen bulegoetara joan beharko dute (La Perrera eraikina, Sabino Arana 50), "Emantzipaziorako Ibilbide Pertsonala" diseinatzeraz.

5.4. ITINERARIO PERSONAL DE

EMANCIPACIÓN: Verificado el cumplimiento de los requisitos anteriores y en el plazo de 5 días hábiles a contar desde el día en que GAZ Bilbao acredite el cumplimiento de los requisitos anteriores, las personas interesadas que continúen en el proceso deberán acudir a las oficinas de GAZ Bilbao (edificio La Perrera, Sabino Arana 50) para el diseño de un "Itinerario Personal de Emancipación".

5.5. ETXEBIZITZAK HAUTATZEA ETA KOMUNITATEARENTZAKO ZERBITZUEN PLANA DISEINATZEA:

Interesdunek zozketaren hurrenkeran aukeratu dute etxebizitza. Etxebizitzak aukeratu ondoren, erakunde laguntzaileak komunitatearentzako zerbitzuen banako plana egingo die interesdunei.

5.5. ELECCIÓN DE VIVIENDAS Y DISEÑO DEL PLAN DE SERVICIOS A LA COMUNIDAD:

Las personas interesadas procederán a elegir vivienda por orden del sorteo. Una vez realizada la elección de las viviendas, la Entidad Colaboradora elaborará un plan de servicios a la comunidad para cada persona interesada.

5.6 ETXEBIZITZARIK EZ IZATEAREN BETEKIZUNA EGIAZTATZEA:

Gazteria eta Kirol Sailak Jabetza Erregistroaren kokapen-oharra eskatuko die interesdunei, 3. oinarriko e) letran eskatzen den betekizuna egiaztatzeko.

5.6. ACREDITACIÓN REQUISITO NO VIVIENDA:

El Área de Juventud y Deporte requerirá a las personas interesadas nota de localización del Registro de la Propiedad a los efectos de acreditar el cumplimiento del requisito exigido en la letra e) de la base 3.

5.7. ADJUDIKAZIOA:

Aurreko betekizunak bete ondoren, plazak esleituko dira. Gazteria eta Kirol Sailak prozeduraren emaitza argitaratuko du <https://bilbaogazte.bilbao.eus/es/> webgunean. Interesdunek 15 egun balioduneko epea izango dute erreklamazioa aurkezteko, jakinarazpena egiten denetik aurrera. Erreklamazioa GAZ Bilbaon aurkeztuko da, haiekin harremanetan jartzeko komunikazio-kanalen bidez.

5.7. ADJUDICACIÓN:

Una vez cumplimentados los requisitos anteriores, se procederá a la adjudicación de las plazas. El Área de Juventud y Deporte publicará el resultado del procedimiento en la página web <https://bilbaogazte.bilbao.eus/es/>. Las personas interesadas podrán presentar una reclamación en el plazo de 15 días hábiles desde la comunicación. La reclamación será presentada a GAZ

Bilbao a través de sus diversos canales de comunicación.

Deialdian parte hartzen duten eskabideen lehenengo txanda adjudikatu ondoren, Programa etengabe egongo da irekita, eta plaza hutsak zozketaren hurrenkeraren arabera esleituko dira; zerrenda hori agortzen bada, berriz, eskabideen sarrera-hurrenkeraren arabera. Zerrenda hori urte bakoitzeko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, eta interesdunek eskabidea berritu beharko dute.

Adjudicada la primera tanda de solicitudes participantes en la convocatoria, el Programa permanecerá abierto de forma continuada, adjudicando vacantes por orden del sorteo y, en el caso de que se agote este listado, por orden de entrada de las solicitudes. Esta lista tendrá vigencia hasta el 31 de diciembre de cada año, debiendo las personas interesadas renovar su solicitud.

Seigarrena.– Programaren garapena

Sexta.– Desarrollo del Programa

6.1. Kontratua formalizatzea eta bermea

6.1. Formalización del contrato y garantía

Onuradunak hautatu ondoren, esleipena jakinarazi eta 15 eguneko epean, errentamendu-kontratua formalizatuko da. Kontratua formalizatu aurretik, onuradunek, fidantza gisa, bi hilabeteri dagokion zenbatekoa ordaindu beharko diote Gazteria Sailak eta Udal Etxebizitzak TEAk izendatutako erakunde laguntzaileari. Fidantza hori kontratua amaitzean itzuliko zaio, betebeharrak eta konpromiso guztiak bete dituela eta etxebizitza egoera onean dagoela egiaztatu ondoren.

Una vez seleccionadas las personas beneficiarias, en el plazo de 15 días a contar desde la notificación de la adjudicación, se formalizará el contrato de arrendamiento. Con carácter previo a la formalización, las personas beneficiarias deberán abonar a la Entidad Colaboradora designada por el Área de Juventud y el OAL Viviendas Municipales el importe correspondiente a dos mensualidades en concepto de fianza, que le será devuelta a la finalización del contrato una vez acreditado el cumplimiento de todas las obligaciones y compromisos y el buen estado de la vivienda.

6.2. Egonaldiaren iraupena

6.2. Duración de la estancia

- Egonaldiak, hasiera batean, urtebeteko iraupena izango du, eta urtero luzatu ahal izango da, gehienez ere 3 urtera arte, betiere betekizunak betetzen direla egiaztatzen bada.
- Programaren onuradunak kontratua luzatzeko eskatu beharko du, ezarritako epea bete baino bi hilabete lehenago.
- Ez da zigorrik jarriko etxebizitza ezarritako epea baino lehenago uzten bada, betiere gutxienez 30 egun lehenago jakinarazten bada.

- La duración inicial de la estancia será de 1 año, pudiendo prorrogarse anualmente hasta un máximo de 3 años, siempre que se acredite el cumplimiento de los requisitos.
- Será obligación de la persona beneficiaria del Programa solicitar la prórroga del contrato, que deberá hacerlo con dos meses de antelación al cumplimiento del plazo establecido.
- No se penalizará el abandono de la vivienda antes del plazo establecido, siempre que se avise con una antelación mínima de 30 días.

6.3. Onuradunen eskubideak

6.3. Derechos de las personas beneficiarias

- Etxebizitza partekatuaren bizitegi-erabilera.
- Zerbitzu eta instalazio komunak erabiltzea.
- Erakunde laguntzailera jotzea informazioa eskatzeko, proposamenak egiteko edo elkarbizitzako keak edo gatazkak planteatzeko.
- GAZ Bilbaok "Emantzipaziorako Ibilbide Pertsonalean" lagun egitea.
- Uso residencial de la vivienda compartida.
- Utilización de los servicios e instalaciones comunes.
- Acudir a la Entidad Colaboradora para solicitar información, hacer propuestas o plantear quejas o conflictos de convivencia.
- Servicio de acompañamiento en el desarrollo del "Itinerario Personal de Emancipación" a través de GAZ Bilbao.

6.4. Onuradunen betebeharrak

- Errenta sinbolikoaren hileko zenbatekoa (55 € hilean) eta hornidura-gastuei dagokiena (gutxi gorabehera 60 € hilean) ordaintzea. Kopuru hori Erakunde Laguntzaileari ordainduko zaio hurrengo hilaren 1etik 7ra bitartean.
- Zenbateko horiek urtero berrikusiko dira, EEElaren arabera (Etxebizitza Errentamenduen Erreferentzia Indizea).
- Komunitatearentzako zerbitzuetan astean gutxienez 4 ordu betetzea. Zerbitzu horiek esleitzeko, kontuan hartuko dira interesdunaren lehentasunak, gaitasunak eta disponibilitatea, eta kontratuari erantsitako dokumentuan zehaztuko da.
- Esleitutako gela modu eraginkorrean eta jarraituan okupatzea. Esleitutako logela hilabeteko epean okupatu beharko da, errentamendu-kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita, udalaren iritziz bidezko arrazoi bat dagoenean izan ezik. Hori egiten ez bada, programatik kanpo geratzea ekarriko du. Adjudikaziodunek ezin izango dute logela hori edo etxebizitzako beste ezein elementu osorik edo partzialki laga, errentan eman edo azpierreant eman. Erabat

6.4. Obligaciones de las personas beneficiarias

- Abonar la cuantía mensual de renta simbólica (55 € mensuales), más la aportación por gastos de suministro (importe aproximado de 60€ mes). El abono se realizará a la Entidad Colaboradora entre los días 1 y 7 del mes siguiente.
- Estos importes serán revisados anualmente en función del IRAY (Índice de Referencia de Arrendamientos de Vivienda).
- Cumplir un mínimo de 4 horas semanales de servicios a la comunidad. La asignación de estos servicios se hará teniendo en cuenta las preferencias, competencias y disponibilidad de la persona interesada, y quedará determinada en documento anexo al contrato.
- Ocupar de forma efectiva y continuada en el tiempo la habitación asignada. La habitación asignada deberá ocuparse en el plazo de 1 mes desde la formalización del contrato de arrendamiento, salvo causa justa a criterio municipal. El incumplimiento comportará la exclusión del Programa. Las y los participantes adjudicatarios no podrán ceder, arrendar o subarrendar total o parcialmente la habitación ni ningún otro elemento de la vivienda. Queda terminantemente prohibida la estancia

debekatuta dago programatik edo jarraipena gainbegiratzeko duen erakundearekin formalizatutako kontratutik kanpoko pertsonak bertan egotea.

de personas ajenas al Programa o al contrato formalizado con la Entidad que supervise el seguimiento.

- Logela "Bilbao Gazte Partekatzen" programan hitzartu bezala erabiltzea, hau da, bizileku gisa. Debekatuta dago jarduera komertzialak, profesionalak edo antzekoak egitea. Debekatuta daude, halaber, jarduera osasungaitz, gogaikarri, kaltegarri edo arriskutsu guztiak.
- Parte-hartzaileek ezin izango dute inolako obrarik egin Udal Etxebizitzak erakundearen idatzizko baimenik gabe. Baimen hori Programaren garapena gainberatuko duen erakunderari zuzendutako idazki baten bidez eskatuko da, eta ezin izango dute gastu edo kalte-ordainik eskatu, horretarako baimena eman badute ere.
- Emantzipaziorako Ibilbide Pertsonalaren helburuetan aurrera egitea eta aurreikuspenak betetzea, GAZ Bilbaoren aholkularitzaren eta jarraibideen arabera.
- Bizikidetzak arauak errespetatzea eta etxebizitzako altzariak eta instalazioak behar bezala erabiltzea.
- Sor daitezkeen bizikidetzak gatazkak konpontzen laguntzea eta udalak horretarako baimendutako pertsonari edo erakundeari etxebizitzan sartzen uztea, etxebizitza, ekipamendua eta instalazioak behar bezala erabiltzen direla egiaztatzeko.
- Destinar la habitación al uso convenido y propio de "Bilbao Gazte Partekatzen", como es servir de vivienda. La realización de actividades comerciales, profesionales o análogas queda prohibida. Quedan asimismo prohibidas cualesquiera otras que sean insalubres, molestas, nocivas o peligrosas.
- Las personas participantes no podrán realizar obra alguna sin el consentimiento escrito de Viviendas Municipales, que se recabará mediante escrito dirigido a la Entidad que supervise el desarrollo del Programa, ni podrá reclamar indemnización o gasto por las que hubiese realizado, aun habiendo mediado consentimiento.
- Avanzar en los objetivos del Itinerario Personal de Emancipación y cumplir sus previsiones, conforme al asesoramiento y pautas de GAZ Bilbao.
- Respetar las normas de convivencia y hacer un uso adecuado del mobiliario e instalaciones de la vivienda.
- Colaborar en la resolución de posibles conflictos de convivencia que se pudieran plantear y facilitar el acceso a la vivienda a la persona o entidad autorizada al efecto por el Ayuntamiento para comprobar el correcto uso de la vivienda, equipamiento e instalaciones.

Zazpigarrena.– Egonaldia amaitzeko arrazoiak

Séptima.– Causas de finalización de la estancia en el Programa

- Ezarritako aldia igarotzea edo borondatezko baja.
- Arrazoi hauetakoren batengatik kanporatzea:
- Transcurso del periodo establecido o baja voluntaria.
- Expulsión por alguna de las siguientes causas:

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> - Betebeharrak ez betetzea. Honako hauek, besteak beste: <ul style="list-style-type: none"> ○ Hiru hileko zenbatekoa ez ordaintzea edo justifikatu gabeko atzerapenak izatea. ○ Komunitatearentzako zerbitzuak behin eta berriz eta justifikaziorik gabe ez egitea. ○ Emantzipaziorako Ibilbide Pertsonala betetzeko behar den ahalegina eta dedikazioa ez egiaztatzea. ○ Etxebizitzan bizikidetza-arazoak sortzea eta egindako errekerimenduei ez erantzutea. ○ Etxebizitza modu egokian ez erabiltzea eta altzarien, ekipoen eta instalazioen erabilera desgokia egitea. ○ Etxebizitzaren erabilera hirugarrenei bidegabe lagatzea. ○ Etxebizitza ohiko moduan ez okupatzea, hau da, inolako justifikaziorik gabe etxebizitzatik kanpo egotea hilabetetik gorako aldi jarraituetan. <p>Programaren onuradunek ez badute betebeharrak horietakoren bat bete, ez dute fidantza itzultzeko eskubiderik izango.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dokumentazioan datu faltsuak ematea. - Programan parte hartzeko betekizunak galtzea, udalaren baimena dagoenean izan ezik. | <ul style="list-style-type: none"> - Incumplimiento de las obligaciones. Entre otras que se pudieran acreditar, las siguientes: <ul style="list-style-type: none"> ○ Impago de tres mensualidades o retrasos injustificados. ○ Incumplimiento reiterado e injustificado de los servicios a la comunidad. ○ No acreditar el esfuerzo y dedicación debida en el cumplimiento del Itinerario Personal de Emancipación. ○ Causar problemas de convivencia en la vivienda y no atender a los requerimientos efectuados. ○ Uso indebido de la vivienda y uso inadecuado del mobiliario, equipos e instalaciones. ○ Cesión indebida del uso de la vivienda a terceros. ○ No ocupación habitual de la vivienda, entendiéndose por tal el permanecer fuera de la misma de forma injustificada en periodos continuados superiores a un mes. <p>En caso de incurrir las personas beneficiarias del Programa en alguno de los anteriores incumplimientos, no tendrán derecho a la devolución de la fianza.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Falsedad en la documentación presentada. - Pérdida de los requisitos para participar en el Programa, salvo autorización municipal. |
|---|---|

Kanporatzea Batzorde Mistoak proposatuta erabakiko da.

La expulsión será acordada a propuesta de la Comisión Mixta.

